

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4636

1599/2022 EBAZPENA, urriaren 5ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, uztailaren 28ko 1409/2022 Ebazpena aldatzeko dena. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Goi Mailako Ingeniaria kategorian (Mantentze Lanetako eta Instalazioetako Goi Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala) lotura estatutarioko izaera lortzeko hautaketa-probetako epaimahai kalifikatzailea izendatzen da.

Indarrean dagoen legediak emandako ahalmenez baliaturik,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 28ko 1409/2022 Ebazpena aldatzea, Goi Mailako Ingeniaria kategorian (Mantentze Lanetako eta Instalazioetako Goi Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala) epaimahaikidearen osakerari dagokionean, horrela:

- a) Igor Astarbe Escudero jaunaren izendapena lehenengo epaimahaikide titular gisa ezeztatzea.
- b) Javier Abrisketa Zabala jaunaren izendapena lehenengo epaimahaikide ordezkoko gisa ezeztatzea.
- c) Javier Abrisketa Zabala jauna lehenengo epaimahaikide titularra izendatzea.
- d) Begoña Carranza Arana andrea lehenengo epaimahaikide ordezkoa izendatzea.

Bigarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitara dadin agintzea.

Hirugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoaren arabera; hots, oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituen horretan ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 5a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.